

Elizan, kanpaia...



Jose Inazio
Basterretxea

EHU-KO IRAKASLEA

Kontu zaila da –gaitza– gai abstraktuei eta erakunde inpersonalei buruz baino, hezur-haragizko pertsoneri buruz hitz egitea. Batez ere, gaiak tabu-itxura hartu baldin badu inoiz.

Gazteek sufritzen dituzten eraso sexualen heren-laurden bat gertatzen dira Elizako profesionalen esku: adin nagusikoak atsegindurik eta adin txikikoak mindurik. Neurriak aspaldi hartuak behar zituen Elizak, hainbat norbanakoren mina eta horrenbesteko morbo mediatikoa saihesteko.

Zein da arrazoa umeen organo sexualen kontura poztu eta alaitzeko? Zer gertatzen da adinez nagusi direnak adin txikikoen pentsura atsegin sexuala bilatzeko?

Izango da, ba, izango denez, erantzun bat baino gehiago. Jakina.

Baina, abusu sexualean bada uste hedatu bat erasotzailearen partetik, eta da besteak baino arrazoi handiagoaren jabe izatearena. Agintekeria, akaso. Abusotzaileak uste du arrazoi handiagoa duela berak inor bere gogoetara behartzeko, abusatua denak izan lezakeena baino gehiegikeriarik ez jasotzeko. Hartara, abusatuaren borondatea abusotzailearen mendekoa da erasotzailearen usterako.

Eta hori da arrazoa, seguru asko, Elizan bezala, kirol-aldageletan, eskoletan, eta familia barruko txoko ezezagunetan umez eta gazteez abusatzeko. Nagusikeria.

Idatzi diren hainbat testutan, derrigorrezko zelibatua aipatu izan da Eliza barruko gaitzaren

iturritzat. Abade katolikoek ezin dute bikoterik izan. Eta, argi dago errepresio sexualak ezin due-l fruitu onik eman egungo gizartean.

Aipatu ere, aipatu da ezen Lege kanonikoa izan daitekeela fenomenoaren beste atal bat arretaz aztertzekoa. Ohitura baitu Elizak –armadak bezala– etxean bertan konpontzeko konpondu beharrekoak, epaitegi zibiletan egin ordez. Bekatuaren eta delituaren arteko mugak ez daude beti argi erakunde erlijiosoaren baitan. Eta hori konpondu beharra dago.

Elizak denbora beharko du afera argitzeko. Baina, kontua ezin daiteke luzatu *ad eternum*, zorneak hartuko baitu erabat zauria. Gardentasuna exijitzen du gizarteak.

Abade izan, guraso izan, auzoko izan... adin txikikoak abusatzeko hemen eta hor, Elizan eta familian, eskolan eta kirol-taldean, dagoen arrazoi komuna da umea izaki osotzat ez hartzeko ohitura: ez da inor gaztetxoa, ez da ezer... adinez nagusia denaren menpeko da, haren gogaietara ibili behar duena.

Horregatik armatzen dira umeak gerretan, horregatik mutilatzen dira, horregatik meazuloe-tako lan izugarrietara kondenatzen, horregatik bortxatzen. Nagusien panpinak direlakoan, txo-txongiloak.

Norbaitek ordaindu behar ditu nagusien beldur-rak, frustrazioak eta ezinak. Horixe da kontua-ren larria. ■

Umore eman gabe



Miren Artetxe

BERTSOLARIA

Umoreak umore izateko, igorlearen eta hartzailearen mundu ikuskera partekatua behar omen du. *Gutasun bat, bestetasun* baten definitua. Gu ez-ezjakinak. Gu ez-emakumeak. Gu ez-baserritarak. Ez-homosexualak. Ez-ijitoak. Eta jakinik ez dagoela umore neutrorik, testuinguruaren baitan zein guk zein besteri egiten dion barre, horren arabera izango da umorea subertsiboa edo *statu quo*aren aldekoa, zapaltzailea ala askatzailea.

Ez gaitezen engaina, ordea. Beltzek izango dituzte zuriei buruzko txisteak, baina, ezin esan txiste horiek arrazistak direnik, ez dutelako atzean mendetako egiturazko zapalkuntza historia bat. Bes-

terik da beltz talde batean dagoen zuria deseroso sentitu daitekeela txiste horien osteko barre-alga-ren artean. Umoreak horixe du, kamarada.

Zapalkuntza harremanak gurutzatu ere egiten dira, ordea. Bertakoaren eta etorriaren artean. Langilearen eta nagusiaren artean. Eta hor hasten da kontua korapilatzen. Hor koka liteke eztabaida.

Baina, zertarako egin saltsa hain mehe? Bote-reak erabaki du umore jakin bat iraingarria dela batzuentzat eta, beraz, onartezina denontzat. Atera du aniztasunaren eta elkarbizitzaren jokerra eta orain barkamena eskatzea dagokionari dagokio eta ongi merezia du zigorra.

Ez zaigu umorea fintzea besterik gelditzen. ■